

Zurekin
DONOSTIA gara

**ELKARREKIN OREKA
IRAUNKORTASUNA
ETA JUSTIZIA SOZIALA**

Udal hauteskunde programa (2019-2023)
2019ko maiatza

ehbildu

Bizitza burujabeak, Donostia libre batean

Burujabetzaren aldeko euskal ezkerreko indarra da EH Bildu. Justizia sozialean oinarritutako Euskal Herri independente bat lortzea dugu xede, eta honek ezinbesteko egiten du gure buruen jabe izateko moduak bilatzea.

Demokrazia formala, demokrazia ordezkatzailerak, hustuketa prozesu batean dago, aspaldi da funtsezko erabakiak beste leku batean hartzen direla. Benetako demokrazia, politika jendearentzat eta jendeagatik egiten duena, finantza-elite batek bahituta dago, eta horren ondorio dira, esaterako, pentsio kaskarrak. Mendekotasun egoera horiek gainditzeko ezinbestekoa da gure bizitzen gaineko erabaki ahalmena berreskuratzea. Hau da, herritarren bizi-garapenean eragiten duten eremu guztietan, arloz arlo, gure buruen jabe izateko moduak bilatu eta saiatu behar ditugu, bizitza burujabea baita bizitza ona eta duina egiten duena.

Burujabetza osoa nahi dugu, herritarren oinarritzko beharrezkoak benetan asetzeko behar diren tresna guztiak edukitzeko, eta hortxe kokatzen ditugu lehentasunak. Subiranotasun sozial baten aldeko apustua egiten dugu, pertsona guztiei, batez ere egoera okerrean daudenei, bizi baldintza duinak eta ongizatea bermatzeko. Horixe da gure lehentasuna, burujabetza osoa eskuratzea bide bakarra baita herritar guztien ongizatea bermatzeko.

Oreka, iraunkortasuna eta justizia soziala

Donostia berria, herritarra, eraiki nahi dugu, bertan bizi garen pertsona guztiok duintasunez, aukera berdintasunean, bakean eta askatasunean bizi gaitezten. Herritarrok erabaki ahalmen osoa izatea nahi dugu, Donostiaren garapena, orekan, iraunkortasunean eta justizia sozialean oinarritzeko, okerren dauden herritarren beharrezkoak betetzea bermatzeko.

NORK BERE BIZI-PROIEKTUA GARATZEKO HIRIA

1-17 neurriak

EH Bilduk argi du herritarrek beren bizi proiektuak duintasunez garatu ahal izatea bermatzea dela instituzioen helburu nagusia. Donostiako Udalak ere helburu bera izan behar du, bai bere eskumen esparruan, bai donostiarren eskubideak gainerako instituzioen aurrean defendatuta ere.

Etxebizitza egoki bat eta diru sarrera duinak (enpleguaren bitartez, lehenik, edo bestela, diru laguntzen bitartez) kontzeptu horren oinarritzko zutabeak dira.

Etxebizitzarako sarbidea eskubide bat da. Hala ere, ondare espekulatibo bihurtu zaigu. Ildo horretatik, Donostia marka guztiak hausten ari da etxebizitzaren salmenta eta alokairu prezioei dagokienez, eta horren ondorioz, ehunka eta ehunka pertsonak auzo edo hiritik alde egin behar izaten dute. Egia da aspaldiko arazoa dela, baina azken urteotan (turistifikazioaren ondorioz, besteak beste) izugarritzko gorakada dago: lehen oso zaila bazen etxebizitza eskuratzea, gaur egun utopia bihurtzen ari da. Zer esanik ez, donostiar gazteentzat. Datu esanguratsu bat: agintaldi honetan %30 baino gehiago garestitu da alokairua gure hirian. Argi eta garbi esan dezakegu “herritarren kanporaketa” efektu bat dagoela gaur egun Donostian. Horregatik, etxebizitzaren funtzio soziala berreskuratzeko, eta donostiarrek Donostian bertan bizitzen jarraitzeko aukera izan dezaten, mekanismo guztiak erabili behar ditugu, Etxebizitza Legea edo hirigintza bera tresna nagusiak izanik.

Diru sarrera duinei dagokienez, oso kezagarria da enpleguaren prekarizazioa. Batez ere, gazteen artean. Udalak tresna mugatuak ditu alor honetan, baina egia da azken urteotan sustatutako eredu sozioekonomikoak, turismoan eta merkataritza gune handietan oinarrituak, arazoa areagotu besterik ez duela egin. Udalari eragile aktiboa izatea dagokio gai honetan; lehenik eta behin, bere ardurapeko alorretan.

Hiria, bestalde, zahartzen ari da. Eta horrek sektore honen beharrei erantzutea eskatzen du: gainerako herritarrei bezala, diru sarrera duinak bermatzea; zahartze aktiborako tresnak eskaintzea; irisgarritasuna ziurtatzea; zainketa egokia...

JUSTIZIA SOZIALA HELBURU, ELKARTASUNA ETA FEMINISMOA IPARRORRATZ

18-31 neurriak

Donostia justua nahi dugu, orekak bilatzen dituen eta aberastasuna banatzen duena. Solidarioa, mundu zuzenagoa eta iraunkorragoa egiten laguntzen duena. Eta noski, edozein bazterkeria errotik moztuta, emakume eta gizon guztien eskubideak bermatzen dituena.

Horregatik, Donostiako Udalaren eskumenen esparruan, gainerako eremu guztietan bezala, EH Bilduk zerga politika progresiboak sustatuko ditu, gehien duenak gehiago ordain dezala. Garapenerako lankidetzaren indartuko dugu, koherentziaz, eta eremu honetan lanean ari diren erakundeen eskutik. Eta noski, emakume eta gizonen arteko berdintasun formalek errealera pasatzeko neurriak hartuko ditugu, bizitzaren iraunkortasuna ardatz hartuta. Horrek esan nahi du ikuspegi feminista txertatu behar dela politika publiko guztietan zeharkakotasunez, emakumeen parte hartze sozopolitiko indartu behar dugula, zainketa duin eta unibertsalerako baldintzak sortu behar ditugula eta indarkeria matxistari aurre egiteko neurri eraginkorrak hartu behar ditugula.

EREDU EKONOMIKO OREKATUA ETA IRAUNKORRA, HERRITARRAK OINARRIAN

32-47 neurriak

Azken agintaldi honetan, hiriko garapen ekonomikoa soilik zerbitzuen sektorearen inguruan, eta nagusiki turismoaren inguruan, egituratzeko joera kezagarria nabarmendu da. Gaur egungo Donostian, ekonomiaren lehen eta bigarren sektoreak ahulduta edo desagertzearen daude. Turismoaren zerbitzura dauden aktibitate ekonomiko berriak hiriko egitura produktiboa eraldatzen ari dira, eta kapital finantzarioak erabakitzen ditu gero eta ageriago inbertsioen norabidea, eta errentaren egitura eta banaketa.

Donostiak ekonomia dibertsifikatua behar du, ekonomiaren sektore guztiak bultzatu behar ditu, modu orekatuan, eta betiere eredu iraunkor baten baitan. Hutsunez betetako ekonomiaren puzzle horretan, beraz, orekak berreskuratu edo oreka berriak bilatzea ezinbestekoa da. Ildo horretatik, zientzia eta teknologia bultzatzeko, industria berreskuratzeko eta turismo eredu iraunkor bat garatzeko apustua egingo du Donostiako EH Bilduk. Oinarritzko beste erroka bat merkataritza txikia da, hiri eta auzo biziak izateko funtsezkoa delako eta, hala ere, mehatxu handiak dituelako inguruan. Eta guztiaren atzean, ideia garbi bat: ekonomia bizi eta dinamikoa behar dugu, donostiarrek Donostian duin bizitzea eta haien bizi kalitatea bermatzeko.

KOHESIONATUTAKO HIRIA

48-59 neurriak

Donostian egiazko elkarbizitzan sakontzeko ezinbesteko oinarria da bertan bizi diren pertsona guztiek eskubide, betebeharrak eta aukera berberak izatea eta nork bere bizi proiektua duintasunez garatu ahal izatea. Hau da, “herritartasun unibertsal” kontzeptu inklusiboaren defentsa aktiboa egin nahi dugu. Kontzeptu horren arabera, pertsonak eskubideen eta erantzukizunen subjektuak dira gizaki diren neurrian. Hori dela-eta, pertsonen ezin zaie ezin eskubide kendu beren jatorri, arraza, sexu, etnia edo nazionalitateagatik, eta denok gara erantzule pertsona guztiek dituzten eskubide guztien erabilera bermatzeko garaian.

Kultura eta jatorriari dagokionez, Donostia hiri anitza da, baina errealitatea da Euskal Herriak, burujabetza faltarengatik, aniztasun hori kudeatzeko tresna propiorik ez duela eta beraz, oso mugatua dela, alor honetan, donostiarron eskumena. Aukerak badira, ordea, eta gure ardura da haien gauzatzea. Funtsezkoa da elkarren arteko ezagutza eta aitortza sustatzea, xenofobiaren aurka borrokatzea eta migratzaileek ere, gainerako herritar guztiek bezala, Donostiako bizitza sozialean, politikoan edo kulturean parte hartzea.

Donostia hiri anitza da, eta euskara ere kohesio elementu izatea nahi dugu. Donostian euskaraz bizi nahi dugu: etorkizunean, noski, baina orain ere bai. Beraz, euskaraz osorik bizitzeko baldintza politikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak lortu behar ditugu, Donostiako gaur egungo errealitateak abiatuta. Udalak motorra izan behar du eginkizun honetan, betiere euskalgintzaren eskutik, eta azken honen jarduna sustatuta.

Etorkizuneko Donostiaz ari garela, derrigor gazteriaz hitz egin beharra dago. Nekez izango baitu etorkizun oparoa hiri batek gazteak zokoratzen baditu. Eta alor honetan, esan dezagun garbi, arazo izugarri larria du Donostiak: etxebizitzarako sarbide ia ezinezkoaren eta enpleguaren prekarizazioaren ondorioz, ehunka gazte Donostia uzten dute urtero, inguruko udalerrietara edo beste leku batzuetara joateko. Komunitate batek ezin du hau inola ere onartu, eta premiazko erabakiak hartu behar dira. Gai hau zeharkakoa da, eta programa honetako beste atal batzuetan ere jasota daude EH Bilduk proposatutako neurriak, baina gazteriarekin lotutako politikak hainbat alderdi jasotzen dituztenez, haietako batzuk bildu ditugu segidan.

SORKUNTZA, HEZKUNTZA ETA KIROLA AHALDUNTZEKO TRESNA GISA

60-67 neurriak

EH Bilduk kulturadun herritar osasuntsu eta ikasiez osatutako Donostia nahi du. Kultura, bizimodu osasuntsua, kirola eta hezkuntza oinarritzko eskubideak eta pertsonen garapenerako funtsezko tresnak direlako.

Sorkuntza prestigiatuko duen kultur eredu bat bultzatu nahi dugu, kalitatezko enplegua sortuko duena, eta gure herriko aniztasuna errespetatu eta euskara indartuko duena. Ikuskizun soiletatik haratago, herritarrak ahalduzko tresna ere izan behar du kulturak. Eta festa herrikoi eta parte-hartzaileak bultzatuko ditugu, Donostiako kulturaren ezaugarri diren heinean.

Ildo beretik, kirol alorrean, praktika sustatzeko politikak garatu behar direla uste dugu. Horretarako, ezinbestekoa da azpiegitura egokiak izatea, gaur egungoen erabilera optimizatzea eta ekimen zehatzak bultzatzea.

Hezkuntzan, bestalde, egia da Udalak eskumen mugatuak dituela. Baina, hala ere, eskumen horiek donostiar guztiei kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea bermatzen zaiela ziurtatzeko, azpiegitura egokiak eskaintzeko eta eredu barne-hartzailea eta parte-hartzailea sustatzeko erabili behar ditu Udalak, EH Bilduren ustez.

HIRI-EKOLOGIAREN DEFENTSA ETA KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO BORROKAN EKARPENA

68-85 neurriak

Donostia iraunkor baten aldeko apustua egiten du EH Bilduk, ingurumen aldetik zein ikuspegi sozialetik. Alegia, Donostian garatutako politikak ezin dute kaltetu gure natur ondarea, eta areago, hura zaindu eta babestea izan behar dute helburu. Aldi berean, politika horiek donostiarren beharrei eta ongizate kolektiboari erantzun behar diete eta ez gutxi batzuen interesei. Irizpide horiek gidatu behar dute, EH Bilduren ustez, Donostiako Udalaren jarduna.

Horregatik, Donostiako EH Bilduk energia sistema burujabe eta iraunkor bat sustatuko du; bioaniztasuna zaindu eta landa eremuak babesteko politika eraginkorrak; ekonomia zirkularraren irizpideen ildotik, ahalik eta hondakin gutxien sortu eta ahalik eta gehien birziklatzeko neurriak, eta donostiarren beharrei erantzuneko dien mugikortasun sistema iraunkor eta sozialki justu bat (metro pasantearen aurrean, hiri osoaren mugikortasuna hobetu eta garraio sistema guztien arteko osagarritasuna bilatuko duen eredu iraunkorra bultzatuko du EH Bilduk)

Maite dugu geure hiria, maite dugu geure jendea eta maite dugu geure ingurumena. Koherenteak bagara horrekin, ezinbesteko orekei eustea lortuko dugu. Eta horixe izango da klima aldaketaren kontrako borrokari donostiarrok egingo diogun ekarpenik onena.

MEMORIAN, EGIAN, JUSTIZIAN ETA DEMOKRAZIAN OINARRITUTAKO ELKARBIZITZA

86-90 neurriak

EH Bilduk orain arteko giza eskubideen urraketekin amaitu nahi du.

Donostia herritarrei haien eskubideak eta askatasunak gauzatzea ahalbidetzen dien esparru demokratikoa izan dadin pausoak emango ditu EH Bilduk; non, elkarbizitza sustatzeko, gatazkak elkarriketa eta akordioen bidez bideratuko diren; non herriaren hitza aitortua eta errespetatua izango den.

Horretarako, azken hamarkada luzeetan eman diren giza eskubideen urraketan aurrean, memoria, egia eta justizia aldarrikatzen ditugu. Metatutako min guztia erreparatu beharra dago. Ikuspegi eta praktika orokor zein integralekin, alderdikieretatik urrun. Indarkeria pairatu duten biktima guztiak aitortuz eta haien minak erreparatuz.

Memoria ezak oraina eta etorkizuna umezurtz uzten dituelako, denbora luzez pairatu dugun sufrikarioa erreparatu nahi dugulako, elkarbizitzan sinesten dugulako, horrelakorik berriro ere sekula gerta ez dadin nahi dugulako, justizia, demokrazia eta bakea nahi ditugulako, besteak beste.

Bestela esanda, gaurdanik, aurreko zikloak utzitako ondorio guztiak konpondu egin behar dira. Pausoz pauso baina oinazea sortzen duen zauri irekirik utzi gabe. Gurean, oraindik ere eta zoritxarrez, aitortza eta erreparazio instituzionalik jaso ez duten milaka eta milaka herritar daude, baita Donostian ere.

Bide horretan, egungo espetxe politika anakroniko eta mendekatzailearekin amaitu beharra dago. Kontrakoak giza eskubideen urraketa betikotzea baitakar. Donostiako EH Bilduk donostiar preso guztiak etxean lehenbailehen egoteko lan egingo du.

ASKATASUN ETA ESKUBIDE GUZTIEN JABE DIREN HERRITARRAK

91-112 neurriak

Donostiako EH Bilduk bestelako gizarte eredu bat eskaini nahi die donostiarrei. Horregatik, herritarrek parte hartzeko gunea eta dinamikak sustatuko ditugu, demokrazian sakontzeko asmoz eta eraldaketarako tresna gisa. Donostiarrak ahalduntzen lagunduko dugu, beraz, eragile aktiboak eta politika publikoen benetako protagonistak izan daitezten. Hau da, Donostiako EH Bilduk parte-hartze sozialerako politikak landu eta parte-hartzean oinarritutako demokrazian sakontzeko konpromiso argia du. Horretarako, kontuan hartuko da gizarteko sektore jakinek (emakumeek...) beste batzuen (gizonak...) aldean dituzten egoera asimetrikoak, eta berdintasun erreala eta eraginkorra bermatzeko lan egingo du. Horrek, noski, gertutasuna eskatzen du Udalaren aldetik, gardentasuna ere bai, eta eskubideen urraketa ororen kontra borrokatzea eta edozein praktika klientelista salatzea.

Norabide berean lan egin behar du Udaltzaingoak ere. Udaltzaingo gertukoa behar dugu, zerbitzuko, gardentasunez eta donostiarren eskubideak eta askatasunak defendatzeko lan egingo duena. Izaera komunitarioa areagotzeko, prestakuntza hobetzeko eta haren autonomia defendatzeko neurriak hartuko ditugu, beraz.

1 Etxebizitzen alokairuaren prezioari muga bat jarriko zaio**ETXEBIZITZA
ZERGAK**

Auzoka edo eremuka, muga bat jarriko zaio etxebizitzaren alokairuari. Administrazioaren jabetzakoak diren edo nolabaiteko lotura duten etxebizitzetan derrigorrezkoa izango da. Merkatu libreko etxebizitzetara dagokienez, muga hori gomendioa izango da (Euskal Herrian ezin baitugu gaur egun legez halakorik egin, burujabetza faltaren ondorioz), baina hala ere, muga hori gainditzen dutenek gain zerga bat izango dute.

2 Hutsik dauden 1.000 etxebizitza alokairuaren merkatura bideratuko ditugu**ETXEBIZITZA**

EAEko Etxebizitza Legean aurreikusitako mekanismoak martxan jarriko ditugu, Udalean bertan eta Eusko Jaurlaritzan eraginda. Neurriok Donostian, bi urtean, 1.000 etxebizitza alokairuaren merkaturara jartzea ahalbidetu beharko lukete. Batetik, hutsik dauden etxebizitzetara EAEko Legean aurreikusten duen kanona kobratuko diegu (10 euro metro karratuko urtean). Bestetik, bi urtez hutsik egondako etxebizitzak alokairuan eskaintzera behartuko dugu. Donostiako Udalak hutsik dauden etxebizitzetara zerranda egin behar du.

3 Pisu turistikoak: lehen solairuaren araua Donostia osoan**ETXEBIZITZA
TURISMOA**

Pisu turistikoaren kopurua mugatu eta murriztuko dugu. Lehenik, saturazio gunea, Parte Zahar osoan jartzeaz gain (kaian eta ekialdeko zabalgunean ere bai), Erdialdera eta Grosera zabalduko dugu. Bigarrenik, lehen solairuaren araua berreskuratuko dugu hiri osoan: lehen solairutik gora ezin izango da inon pisu turistikorik jarri. Eta hirugarrenik, hotelen eta ostatuen baldintza berberak eskatuko zaizkie turismora bideratutako etxebizitzetara: soinua, irisgarritasuna, segurtasuna...

4 Etxebizitza eredu kooperatibo proiektuak gauzatzeko lursailak edo eraikinak**ETXEBIZITZA
HIRIGINTZA**

Donostiak etxebizitza eredu kooperatiboa sustatuko du. Horretarako, Udalaren lursail eta eraikinak erabiliko dira etxebizitza kooperatibak aurrera eramateko, propio horretara bideratutako lehiaketan bitartez. Prozesu publiko parte hartzaileak egingo ditugu eta bidelaguntza eskainiko dugu etxebizitza eta elkarbizitza ereduak diseinatzeko.

5 Etxebizitzaren Udal Behatokia

ETXEBIZITZA

2018an, Donostiako Udaltzaren Etxebizitzaren Udal Behatokia sortzea onartu zuen, EH Bilduren ekimenez. Helburua etxebizitzaren inguruko datuen jarraipen iraunkorra zehaztasunez eta gardentasunez egitea da: prezioak, eskaintza, eskaria, baldintzak... Erabakia gauzatzeko inongo pausorik ez da eman, ordea. EH Bilduk abian jarriko du Etxebizitzaren Udal Behatokia. EH Bilduk, lehentasunez, alokairu soziala sustatuko du.

6 Eraikuntza berria, alokairu sozialerako

ETXEBIZITZA

Sustapen berriak egiteko orduan, dagoeneko kontsumituta dagoen lurzorua erabiltzea hobetsiko du Donostiako EH Bilduk, egoera txarrean dauden inguruneak eraberrituz eta garraio publiko ona duten lekuak hobetsiz. Auzotarrekin beraiekin landutako proiektuak ere hobetsiko ditugu (eta eredu hori bera eramango da sustapen berrietara: Aldakoneara, esaterako). Ildo honetatik, Hiri-Lorategia, Sarroeta... sustapenak bultzatuko ditugu. Urumea ibarraren lanen bigarren fasea abian jarriko dugu (geldirik egon baita agintaldi osoan).

7 Fundazio eta sozietateen etxebizitzak, parke publikora

ETXEBIZITZA

Udalarekin harremana duten organismo, fundazio eta sozietateen etxebizitzak parke publikora bideratuko ditugu alokairuan, prezioak merkatu pribatuaren mende egon gabe. Zorroagako fundazioak alokatzen dituen etxebizitzak, esaterako, Donostiako Etxegintzatik kudeatuko dira, haren alokairurako irizpide sozialak bermatuz. 2011-2015 agintaldian egin bezala, EH Bilduk Donostia etxe kaleratzerik gabeko hiria izan dadin lan egingo du.

8 Etxebizitza partekatze ekimenak bultzatuko ditugu

ETXEBIZITZA

Etxebizitza partekatu nahi duten eta etxebizitza beharra duten herritarren arteko proiektuak sustatuko ditu EH Bilduk. Neurri hau interesgarria izan daiteke sektore jakin batzuentzat: bakarrik bizi diren pertsonak, hirugarren adina edo gazteak, adibidez. Horretarako, etxebizitza partekatu nahi duten pertsonen errolda osatu eta etxebizitza beharra duten herritarrekin etxebizitza partekatze bitartekaritza zerbitzua sortuko da.

9 Loiolako kuartelak berreskuratu, etxebizitzak eta ekipamendu komunitarioak egitekoHIRIGINTZA
DESMILITARIZAZI
OA
AUZOAK

Donostiako Udalak Loiolako kuartelaren lurak berreskuratzeko lan egin behar du; etxebizitzak eta lantokiak egiteko, baita loiolatarrek eta gainerako donostiarrek bizitza komunitarioa garatzeko guneak izan ditzaten bertan (kirola, kultura, aisialdia...). Udalak ez dio Espainiako Armadari kuartelak jartzeko inongo kokalekurik eskaini behar.

10 Gizarte Ekintzaren aurrekontua indartuko duguGIZARTE EKINTZA
EKONOMIA

Agintaldi honetan, Gizarte Ekintza departamentura bideratutako diruak pisua galdu du Udalaren aurrekontuan; alegia, aurrekontu osoa igo den arren, Gizarte Ekintzara zuzendutakoa ez da neurri berean hazi. EH Bilduren ustez, ordea, udal aurrekontua igotzen bada, neurri berean igo behar du, gutxienez, eremu honetan egindako inbertsioak.

11 Gizarte bazterketarako hiru etxebizitza gehiago eta beste "Hotzaldi" batGIZARTE EKINTZA
ETXEBIZITZA

Gaur gaurkoz, Donostiak ez ditu betetzen Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Zorroaren 2016ko dekretuan jasotako betebeharrak. Ildo horretatik, Donostiako EH Bilduk gizarte bazterketarako, gutxienez, beste hiru etxebizitza eta kalean lo egiten dutenentzako beste "Hotzaldi" zerbitzu bat martxan jarriko ditu). Era berean, kale egoera kasuei aurre egiteko, Udalaren eta hirugarren sektoreko erakundeen arteko koordinazio mahai bat sortuko dugu baliabideak optimizatzeko.

12 Zaintza zerbitzuen eta haien langileen baldintzen hobekuntzaENPLEGUA
ZAINZA
FEMINISMOA

Zaintza Donostiako mapa egingo dugu, Donostiako eragileekin batera: etxez etxeko laguntza zerbitzua (SAD), kontraturik gabe zaintze lanetan dabilzan langileak (migratzaileak, haietako asko), barneko langileak, emakumeen etxea eta abar. Etxeko lanetan dabilzan langile guztiei *Lan Gaitasunen Akreditazioa* egiten lagunduko zaie. Sektorearen azterketa egingo dugu hiru helbururekin: zerbitzu hauek balioan jartzea, langileen baldintzak hobetzea (gehien-gehienak, emakumeak) eta zerbitzuen kalitatea handitu eta eskaintza zabaltzea (paseoan ibiltzeko laguntza, esaterako).

13 Esklusio eta pobrezia arriskuari aurre egiteko, herritarrekiko harreman zuzenaGIZARTE EKINTZA
ADINEKOAK
FEMINISMOA

Udalak ezin du herritarren “zain” egon, esklusio edo pobrezia arriskuari aurre egiteko ekimenen alorrean. Esaterako, oraindik ere, ezezagutza handia dago halako egoeran jaso daitezkeen diru-laguntzen inguruan (bereziki kezkarria pentsiodunen artean). Horregatik, informazio kanpainak indartuko ditugu eta esklusio eta pobrezia arriskuaren mapa bat egingo dugu, auzoka, pentsiodunei arreta berezia eskainita eta genero ikuspegiaz.

14 Etxebizitzak hirugarren adinekoen beharretara egokitzeko diru laguntza ildoETXEBIZITZA
ADINEKOAK

Igogailuak jartzeko diru-laguntzen moduan, antzeko ildo bat irekiko dugu etxebizitzan bertan hirugarren adinekoen beharren arabera egokitzapenak egiten laguntzeko (sukaldea, komuna, heldulekuak korridoretan...). Balizko onuradunen errenta kontuan hartuko da lerro honetan eta haren arabera banatuko dira diru laguntzak.

15 Auzo-etxeak bultzatuko ditugu

AUZOAK

Gune komunitarioak sustatuko ditugu auzoetan, autogestioan oinarrituak: topagune irekiak, auzoen dinamizatzailerak eta mota guztietako proiektuak garatzeko tresna biziak. Adin guztietako auzotarrek parte hartu ahal izango dute haietan, baina bereziki bi sektore hartuko dira kontuan: gazteak eta hirugarren adina. Parte Zaharrean auzo-etxea jartzeko 2011-2015ean landutako egitasmoa berreskuratuko dugu. Oro har, udal azpiegituren, haien erabileren eta espazio komunitarioen azterketa bat egin behar da, gabeziak atzemateko eta hobekuntzak inplementatzeko (Añorga, Amara, Parte Zaharra, Ibaeta...).

16 Irisgarritasun unibertsala bermatuko duguIRISGARRITASUNA
ANIZTASUN
FUNTZIONALA

Aniztasun funtzionala duten pertsonak eskubide eta betebeharren subjektuak dira. Udalak irisgarritasun unibertsala bermatu behar die herritar guztiei bizitzako esparru guztietan. Udala da, herritarrekiko instituzio gertukoena eta bertatik eraman behar da irisgarritasuna bermatzeko lidergo politikoa: irisgarria ez den obrarik ez dugu ez sustatuko ez diruz lagunduko. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen bizitza independenterako programak martxan jarri eta bizitza independenterako erreferentziako zentroak sortzeko aukera sustatuko dugu.

17 Azpitoluak, zeinu hizkuntza eta audio deskribatzaileak ezarriko dituguANIZTASUN
FUNTZIONALA

Aniztasun funtzionala duten pertsonen informazioa eskubidea bermatu behar die Donostiako Udalak. Azpitoluak jarri eta zeinu-hizkuntza, eta audio deskribatzaileak eta braillea ezarriko ditugu Udalaren dinamiketan eta hark sortzen dituen ikus-entzunezko materialetan, eta jardunbide horiek orokor bihurtzeko laguntzak emango ditugu.

18 Zerga politikan, progresibitatearen aldeko ildoEKONOMIA
ZERGAK

Udalaren eskumeneko fiskalitate politikan, Donostiako EH Bilduk progresibitatea defendatuko du. Horrek esan nahi du, lehentasunez, zergetan aplikatu behar direla egokitzapenak. Izan ere, zergek, udal tasek ez bezala, progresibitate irizpideak ezartzeko eta, hartara, gehien dutenek gehiago ordaintzeko aukera ematen dute.

19 Udal aurrezki sendoa, zerbitzu publiko indartsuak izatekoEKONOMIA
UDALA

Aurrezkiak Udalaren ohiko funtzionamendua eta iraunkortasuna bermatzen du eta gainera, inbertsioak ahalbidera ditzake. Hori dela eta, udalen egitura ekonomikoan oso gai garrantzitsua da. Azken urteetan PNV-PSE gobernuarekin udal aurrezkiak jaisten ari da: 2014an, 18.315.293,71 euro (%6,93); eta 2017an, 7.215.026,94 (%2,57). Aurrezki arrunta %5etik gora izatea garrantzitsua da, inbertsioak ere bermatzeko eta hirigintzak sortzen dituen diru-sarreraren mende ez izateko.

20 Udalaren egituraren berrazterketa

UDALA

Udalaren gaur egungo egituratzea aztergai jarriko dugu, eta bertan diren kanpo erakunde batzuk (kirolak, kultura...), langileen, sindikatuen eta udal taldeen gehiengo zabalaren adostasunez, Udaleko egitura zuzenera pasatzeko helburuaz.

21 Feminizatutako sektoreen lan baldintzen hobekuntzaUDALA
ENPLEGUA
FEMINISMOA

Donostiako Udalak baditu, bere ardurapean, eta azpikontratazioen bitartez kudeatuta, erabat feminizatutako sektoreak; esaterako, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (SAD) edo udal eraikinen garbiketa. Prekarizazio handia izaten da sektore hauetan. Horren aurrean, Udalak eragile aktibo eta eredu izan behar du eta lan baldintza duinak bermatu (1.200 € baino gutxiagoko soldatarik ez udal kontratazioetan) eta soldata arrakalari aurre egiteko neurriak hartu behar ditu. Epe ertainera, sektore hauen publikaziorantz jotzea da helburua.

22 Emakumeen Etxea indartuko duguELKARTEGINTZA
FEMINISMOA

Emakumeen Etxea emakumeak ahalduzko, berdintasun politikak lantzeko eta mugimendu feministaren eta Udalaren arteko lankidetzak bideratzeko funtsezko tresna bihurtu da. Horregatik, EH Bilduk haren zerbitzuak indartu eta hobetzeko lan egingo du, bertako erabiltzaileen eskutik, eta espazio fisiko arazoari helduko dio, txiki geratzen ari da-eta Emakumeen Etxea. Bestalde, oinarritzko zerbitzu hau ezagutarazteko eta haren kokapena errazteko, seinalizatu egingo dugu, eta haren zerbitzuen deszentralizazioa ere bultzatuko dugu.

23 Programa feministak indartu egingo dituguFEMINISMOA
ELKARTEGINTZA

Hirian badira, auzoetan sakabanatuak, ikuspegi feministatik lanean ari diren emakume asko, taldeka, sareak eta abar. Udalak baliabideak erraztuko dizkie haien jarduna baldintza egokian buru dezaten autonomia osoz.

24 Indarkeria matxista prebenitzeko programa, eskoletan eta aisialdi jardueretanFEMINISMOA
HEZKUNTZA
ELKARBIZITZA
GAZTEAK

Gazteen artean indarkeria matxista prebenitzeko bidean, EH Bilduk programa bat diseinatu eta Donostiako Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko eskoletara eramango du; baita kirol eta aisialdi arloan ari diren erakunde eta elkarteetara ere. Ildo beretik, sensibilizazio kanpaina orokorrez gain, indarkeria matxistaren kontrako ekimen zehatzak ere gauzatuko dira haurtxoko eta gaztelekuetan.

25 Indarkeria matxistari aurre egiteko plana egingo dugu Donostiako mugimendu feministarekin bateraFEMINISMOA
ELKARBIZITZA

Udalak erantzun argia eman behar dio indarkeria matxistari: ez da nahikoa, indarkeria kasu bat dagoenean, hura salatu eta pankartaren atzean jartzea. Jarduera zehatzak ere behar dira, eta gaur gaurkoz, indarkeria matxista jasandako emakumeak artatzeko zerbitzuak eskasak dira eta koordinazio falta dago. Horregatik, hiriko mugimendu feministarekin elkarlan mahaia osatuko du EH Bilduk eta protokolo bat diseinatu eta gauzatuko du. Indarkeria jasan duten emakumeei prozesu osoan lagundu behar zaie (informazio eskaera, salaketa aurkeztu, epaiketa, laguntza psikologikoa...). Eta salaketarik aurkeztu ez duten emakumeei ere zerbitzua eskaini behar zaie.

26 Puntu kritikoak ezabatzeko politika berreskuratuko duguFEMINISMOA
HIRIGINTZA

Puntu kritikoak ezabatzeko ildo berreskuratuko dugu, azken agintaldi honetan apenas ezer egin du-eta Udal Gobernuak. Mugimendu feministarekin, auzo elkarteekin eta bestelako eragileekin lan egingo dugu puntu kritikoaren gaur egungo mapa hobetzeko eta ezarri beharreko hobekuntzak inplementatzeko. Genero ikuspegia udal politika guztietan txertatuko du EH Bilduk; baita hirigintza proiektuetan ere, noski, puntu kritikorik ez dagoela bermatzeko, besteak beste.

27 Berdintasuneko Zuzendaritzaren aurrekontua bikoiztuko duguFEMINISMOA
UDALA

Udalak garatutako berdintasun politikei benetako bultzada emateko eta arestian aipatutako neurriak ezartzeko, Berdintasun Zuzendaritzaren gaur egungo aurrekontua (941.541,92 €, 2019rako) bikoiztu egingo du EH Bilduk. Besteak beste, hiru lanpostu berri sortuko ditugu zuzendaritza honetan.

28 Genero trantsiziozko prozesua hasi nahi duten pertsonen aholkularitza zerbitzua eskainiko dieguANIZTASUNA
FEMINISMOA

Donostiako Udalak lagundu egin behar die genero trantsizioan dauden pertsonen aholkularitza zerbitzua eskainiko die, eta izena aldatu ahal izango dute udal txarteletan -nahiz eta NAN dokumentuan izen aldaketa hori onartu gabe izan.

29 Egonkortutako aurrekontuaren % 0,7 garapenerako lankidetzaraNAZIOARTEKO
LANKIDETZA

Donostiako EH Bilduk udal aurrekontuaren % 0,7 lankidetzara solidario eta eraginkorra garatzeko bideratzeko konpromisoa du. Besteak beste, herritarren artean ikuspegi kritikoa sustatzera bideratuko da aurrekontu hori, Iparra-Hegoa logikatik Globala-Tokian Tokikoa estrategia batera pasatuz eta beste eragile batzuk lankidetzara dinamiketara erakarrita. Ez da lagunduko irabazi asmoa duten erakundeen inongo proiekturik.

30 Ikuspegi internazionalistaz, beste eragile batzuk lankidetzara eremura erakartzeaNAZIOARTEKO
LANKIDETZA

Lankidetzara alorrean, lehentasunez zein eragilerekin lan egingo duen zehaztu behar du Donostiako Udalak: unibertsitateak, Gobernu Kanpoko Erakundeak, gizarte mugimenduak... Lankidetzara Kontseiluak dinamismoa berreskuratu eta benetako eztabaidagune izan behar du. Estaturik gabeko herriekiko lankidetzara indartuko dugu.

31 Erosketa publiko etikoaren irizpideak udal kontratazioetanUDALA
EKONOMIA

Banka Etikoarekin, energiarekin, iraunkortasun ekologikoarekin, software librearekin, parekidetasunarekin edo giza eskubideekin lotutako erosketa publiko etikoaren irizpideak udal kontratazioetan txertatzeko konpromisoa du EH Bilduk. Klausula sozialak errespetatzen direla ere bermatuko dugu.

32 Zientzia eta teknologia bultzatuko dituguEKONOMIA
ENPLEGUA

EH Bilduk hainbat jardueratan oinarritutako eredu ekonomia bultzatu nahi du Donostian: ezin dugu Donostiaren garapen ekonomiko sektore bakar batean -turismoan- oinarritu. Horregatik, zientziak eta teknologiak Udalaren apustu estrategikoa izan behar dute. Donostiak badu, alor honetan, ekosistema garrantzitsua, 5.000 langile ingururekin, eta beste bultzada bat behar du: Ikerkuntza+Garapena+Berrikuntzaren eta industriaren, nekazaritzaren, merkataritzaren eta sektore publikoaren arteko elkarlan aktiboa bultzatzeko eta teknologia zentroen ezagutza eta esperientzia interes orokorraren mesedetan jartzeko. Smart teknologiaren bidez (garapen teknologikoa, ekonomia zirkularra eta pertsonen ongizatea bateratzen dituen kontzeptua) aukera ekonomikoak sortuko balira (autoen erreforma elektrikoarekin, adibidez) kudeaketa Udalak berak egitea defendatuko du EH Bilduk.

33 Industria sortzeko eta erakartzeko apustua eginEKONOMIA
ENPLEGUA

Donostiak industriari ere ezin dio uko egin: Donostiak alor honetan dituen beharrak aztertu behar dira, eta haren iraunkortasuna bermatzeko eta areago, industria berria erakartzeko ildo politiko koherente bat ezarri. Lursail industrial nahikoa badu Donostiak gaur egun: helburua da, beraz, enpresak sortzea eta lursail horietara erakartzea, eta sinergiak eta eraginkortasuna bilatzea. Ildo horretatik, eta kontuan hartuz ondorengo urteetan Eskuzaitzeta (Gipuzkoako industria eremurik handiena) funtzionamenduan hasiko dela, ezinbestekoa da Donostiako parke eta poligonoen berrazterketa orokor bat (Eskuzaitzetaz gain, Papin, Igara, Zuatzu eta 27. Poligonoa).

34 Pertsonen zaintzaren sektoreen garapenaZAINTZA
EKONOMIA
ENPLEGUA

Pertsonen zaintza zerbitzuen inguruko sektore ekonomikoa goraka dator, indarra hartzen ari da eta areago, garapen iraunkor baterako oinarri da. Diagnostiko bat egin eta programa berezituak eskainiko ditugu, prestakuntza hobetzeko, profesionalizazioa indartzeko eta alor honetako ikerkuntza sustatzeko.

35 Trantsizio ekologikoaren sektore ekonomikoetara bultzadaEKONOMIA
EKOLOGIA
ENPLEGUA

Trantsizio ekologikoarekin (energia, ingurumena, ekonomia zirkularra, klima aldaketaren kontrako borroka...) lotutako sektoreak ere indar handia hartzen ari dira, eta lehentasunez landuko ditugu. Industria eta sistema produktiboetan ekonomia zirkularreranzko trantsizioa bultzatzeko konpromisoa du EH Bilduk.

36 Kooperatibak sustatzeko bulegoa ezarriko duguEKONOMIA
ENPLEGUA

Ekintzailatza kooperatiboa, enpresen kooperatibazioa eta enpresa transmisioak laguntzeko zerbitzua jarriko dugu Udalaren Sustapen sozietatean. Diru laguntza larrietan sistema kooperatiboan oinarritutako enpresek izango dute lehentasuna.

37 Ekialderako estrategia integrala

Donostiako ekialdeko herri eta auzoei (Bidebieta, Altza eta Intxaurre) arreta berezia jarriko diegu, hiriak zor historikoa duelako eremu honekin. 2011-2015ean fokua Urumea Ibarrean jarri genuen bezala -nahiz eta oraindik ere hainbat garapen falta diren-, ekialdean jarriko dugu datorren agintaldian. Helburua: Donostiako herri eta auzoen artean barne orekak lortzea eta ekialdeko herritarren bizi kalitatea hobetzea. Herritarren bizimodu orokorra hobetzeko estrategia integral bat behar du ekialdeak: mugikortasuna, irisgarritasuna, hirigintza, kultura, zerbitzu publikoak, gune komunitarioak... Zentzu honetan, eremu metropolitarraren honen inguruko azterketa berezia bultzatuko dugu, inguruko udalerriekin eta portua bera kontuan hartuta, estrategia orokor bat garatzeko.

AUZOAK
EKONOMIA
HIRIGINTZA
GIZARTE EKINTZA
KULTURA
MUGIKORTASUNA

38 Turismoa, donostiarron neurria

Beste edozein jardura ekonomikorik bezala, turismoak ere mugak izan behar ditu. Eta muga hori donostiarren bizi kalitatea da. Horregatik, Donostiako EH Bilduk turismo eredu iraunkorra defendatzen du: masifikaziotik ihesi, gehiago ez haztea eta oraingo fluxuak urte osoan banatzea; sortutako aberastasuna birbanatzea; auzotarren bizi kalitate eta bizimodua eta ingurumena errespetatzea; euskal kultura eta Donostiaren izaera babestea... Zoritxarrez, azken agintaldian Udal Gobernuaren politikak kontrako norabidean joan dira. EH Bilduk iraunkortasun irizpideak ezarriko ditu eta donostiarren neurria egindako eredu iraunkorra sustatuko du, auzotarrekin, eragile sozialekin eta turismoari lotutako sektoreekin aliantzak bilatuta. Ildo honetatik, Turismoaren Behatokia sortuko dugu, etorkizuneko eszenatokiak aurreikusi eta hiria zaintzeko neurriak hartzeko. Pisu turistikoaren kasuan, lehen solairuaren araua berreskuratuko dugu eta, Plan Orokorraren aldaketaren bitartez, ez dugu baimenik emango etxebizitza eraikin osoak hotel bihurtzeko. Parte Zaharrak, turistifikazioaren eta auzotarrek erabiltzeko moduko ekipamendu faltaren ondorioz, plan berezi bat behar du.

TURISMOA
EKONOMIA
AUZOAK

39 Lan baldintza duinak turismoaren sektorean

Azken urteotan, asko igo da turismoari lotutako sektoreetan lanean ari diren donostiarren kopurua. Beste edozein arlotan bezala, Udalak eragile aktiboa izan behar du turismoan ere langileek lan baldintza duinak izan ditzaten. Ostalaritzarekin akordioak bilatuko ditugu, lan baldintza duinak bermatzeko ez ezik, kalitatea eta profesionaltasuna ere hobetzeko. Oro har, gainerako arlo guztietan bezala, turismoak sortutako aberastasuna banatzeko lan egingo du EH Bilduk.

TURISMOA
ENPLEGUA

40 Tasa turistikoa, donostiarren onurarako

Donostiako EH Bilduk tasa turistikoa ezartzeko lan egingo du. Izan ere, donostiarrek ez dute zertan ordaindu turismoak Donostiari sortutako gastuak. Tasa hori progresiboa izatea eta bildutako dirua Udalak kudeatzea eta herritarrentzako zerbitzu publikoak indartzeko erabiltzea defendatuko du Donostiako EH Bilduk.

TURISMOA
ZERGA
UDALA

41 Merkataritza txikiaren aldeko politika sendoa, hiri eta auzo biziak izan ditzagun

Donostia bizia izan dadin, ezinbestekoa da merkataritza txiki sendo bat izatea. Horregatik, azken urteotako gainbeherari aurre egiteko, asoziazionismoa bultzatzeaz gain, egiturazko neurriak hartu behar dira. Lehenik, auzoetako aukera komertzialak aztertu eta auzoko dendak gure hiri eredurako dituzten onurak gizarteratzea. Bigarrenik, auzo bakoitzean ardatz komertzialak zehaztea eta indartzea hainbat arlotan neurriak hartuta (hirigintza, mugikortasuna, obrak...). Hirugarrenik, denda txikien egoera hobetzeko berrazterketa orokor bat, non tasak, beharrak, garraioak... berriro aztertuko diren. Laugarrenik, salmenta zuzena sustatzeko, teknologia berrietara egokitzeko, denda bideragarriak irekitzeko edo mantentzeko eta hobekuntzak egiteko laguntza ekonomikoa eskaintzea, besteak beste.

EKONOMIA
MERKATARITZA
AUZOAK

42 Merkataritza gunehandi gehiagorik ez

On line salerosketa zuzena lehiakide gogor bihurtu zaie azkenaldian dendari txikiei. Azken agintaldian, egoera berri horri aurre egiteko neurriak hartu beharrean, beste lehiakide bat sustatu du Udal Gobernuak: merkataritza gunehandiak. PNV-PSOEren Udal Gobernuak Garberaren zabalkundea sustatu du eta lanak hasiak dira dagoeneko. Ilunben ere beste merkataritza gunehandi bat onartu du. Errekalde ondoan, Teresategin beste bat bultzatzen ari dira PNV-PSOE. Eta Belartzan beste bat egiteko prozesua abiatu dute. EH Bilduk azken biak geldiarazteko ahalegin osoa egingo du.

**EKONOMIA
MERKATARITZA
HIRIGINTZA**

43 Lurra jarriko ditugu nekazari txiki berrien eskura

Nekazaritzan lanpostuak sortzeko, lur publikoak identifikatuko ditugu produktore txiki berrien eskura ipiniz: Antondegi, Auditx-Akular, Muñozabal, Zubieta... Era berean, bertako hazien erabilera bultzatzeko prestakuntza sustatuko dugu; baita Km 0 kontsumoa ere, janleku publikoetan, eskoletan, zaharretan egoitzetan eta abarretan.

**EKONOMIA
ENPLEGUA
EKOLOGIA**

44 Salmenta zuzena eta kontsumo taldeak sustatuko ditugu

Elikadura burujabetzaren bidean, produktoreen salmenta errazteko neurriak hartuko ditugu; besteak beste, merkatuak sustatuta. Kontsumo taldeen kudeaketa ere errazten ahaleginduko gara; esate baterako, saskien banaketa egiteko tokiak eskainiz. Guztiona klusterrean ere landuko dugu elikadura burujabetza, bertako produktuak sustatzeko kanpainak eginda.

**EKONOMIA
MERKATARITZA
EKOLOGIA**

45 Enplegu duina: Udalak egindako kontratazioetan 1.200 €ko gutxieneko soldata

Donostiako Udalak eragile aktiboa izan behar du enplegu duinaren sorreran eta prekarietatearen kontrako borrokan. Lehenik, Udalak berak egindako kontratazioetan, hitzarmenak betetzen direla eta, gutxienez, 1.200 €ko soldata bermatuta; Donostiako EH Bilduk pausoak emango ditu agintaldi honetan azken helburu hau errealitate izan dadin. Kontratueta klausula sozialak (parekidetasun, ingurumen edo lan baldintza alorrean betebeharrak jakin batzuk ezartzen dituztenak) betetzen direla ziurtatuko dugu. Era berean, diru-laguntza lerroetan, kalitatezko kontratazioa hobetsiko da (epe luzerako kontratazioak egiten dituztenei lehentasuna emanda, adibidez).

**UDALA
ENPLEGUA**

46 Eraikitze lan guztietan lan baldintza duinak bermatzeko protokoloa

Udalak arreta berezia eskaini behar dio bere ardurapeko eraikitze lan guztietan lurraldeko hitzarmenak betetzen direla ziurtatzeari, maiz izaten dira-eta irregulartasunak. Horregatik, Donostiako EH Bilduk adostasunak bilatzeko eta protokolo bat diseinatzeko eta, ikuskapenen bitartez, hitzarmenak betearazteko konpromisoa du.

ENPLEGUA

47 Epe luzeko langabeentzako programak

Langabezia tasa jaitsi den arren, eguneroko errealitatearen parte izaten jarraitzen du. Egoera hau bereziki kezagarria da epe luzeko langabeei dagokienez. Lanbiderekin batera, tutorizazio programak eta diru laguntzak sustatuko ditugu, haien enplegutasa hobetzeko. Donostiako Sustapen Planean, 2011-2015 agintaldian abian jarritakoan, lehentasuna emango diegu, diru laguntza lerroetan, kalitatezko enplegua eta epe luzekoa bermatzen duten enpresei, baita 45 urtetik gorako emakume eta epe luzeko langabetuei ere.

**ENPLEGUA
FEMINISMOA**

48 Euskararen normalizazioari bideratutako dirua handitzea, aurrekontu osoaren %2ra iristeko

Donostia euskararen hiria dela esan ohi dugu. Horrek eskatzen du, hitzetatik haratago, Donostiako Udalak euskara sustatzeko eta normalizazioan laguntzeko eragile aktiboa izan behar duela eta konpromisoa sendoa hartu behar duela, aurrekontuetan ere ausardiaz jokatu. Horregatik, aurrekontu osoaren % 2 euskararen sustapenera eta normalizazioari bideratzeko pausoak emango ditu EH Bilduk: udal langileak eta, oro har, herritarrak euskaldundu; euskarazko komunikabideak lagundu; euskalgintzan ari diren elkarteak eta haien dinamikak bultzatu; hiriaren paisaia euskaldundu; kirol eta aisialdi munduan euskararen normalizazioa indartzeko dinamikak; haur eta gazteentzako ekintzak...

**EUSKARA
UDALA**

49 Euskara ikastea, doan

Gure kasuan, Eusko Jaurlaritzari dagokio helduen euskalduntzearen eta alfabetatzearen doakotasuna (EH Bilduk lege proposamena aurkeztu du Eusko Legebiltzarrean eta eztabaidatu egingo da). Hori lortu bitartean, Donostiako Udalak bermatu behar du, bere baliabide ekonomikoekin, euskara doan ikasteko donostiar guztien eskubidea.

EUSKARA

50 Auzoetako euskara batzordeak babestuko ditugu beharrezko tresna eta baliabideak eskainizEUSKARA
AUZOAK
ELKARTEGINTZA

Auzo askotan martxan dauden euskara batzordeek auzoko eragile eta euskaltzaleak biltzen dituzte eta funtsezko lana egiten dute gertutasunetik euskararen erabilera handitzeko; beraiek izan behar dute beren auzorako helburuak eta lan-ildoak finkatzen dituztenak eta arlo horretan lidergoa eramaten dutenak. Lan horrek instituzioen aitortza eta babesa merezi du. Udalaren papera baliabidez hornitu eta komunikazio zein administrazio laguntza ematean datza. Euskara batzorderik ez dagoen auzoetan haren sorrerarako baldintzak erraztuko dira.

51 Euskararen erabilerarako udal irizpideak betearazteaEUSKARA
UDALA

Bereziki zaindu beharrekoak dira Udalaren zerbitzuak eta bere eskumeneko hizkuntza paisaia osoa, baita Udalaren partaidetza duten jarduerak ere. Jarraipen estua egin beharra dago, eta zoritxarrez, nolabaiteko erlaxazioa gertatu da azken agintaldian. Horregatik, konpromiso hori indartuko du EH Bilduk. Kaleko iruditegian (erakusleihoak, panelak eta abar) euskararen presentzia bermatu eta bultzatuko dugu.

52 Udala euskalduntzeko plangintzaren atal berria: Udalbatzaren euskalduntzeaEUSKARA
UDALA

Akordioa politikoa bilatuko dugu udalbatzarretan euskararen erabilera areagotzeko. Udalbatzak eredu izan behar du-eta alor honetan ere. Horretarako baliabideak bideratuko ditugu (udalbatzarrak jarraitzen dituzten herritarrentzako bat-bateko itzulpen zerbitzua, besteak beste). Oro har, udal jardunean euskararen presentzia areagotzeko konpromisoa du EH Bilduk.

53 Hizkuntza Aniztasunaren Gunea sortuko duguANIZTASUNA
EUSKARA

Donostiako Hizkuntza Aniztasunaren Gunea sortuko dugu euskalgintzan eta kultur aniztasunaren esparruan lanean ari diren eragileekin batera: materiala jaso eta konpartitzeko, ikastaroak emateko, hizkuntza gutxituen artean aliantzak sortzeko... Topagune bat izango da, aipatutako eragile horientzat guztientzat, eta beste esparru batzuetan ari direnentzat, zein alor honetan interesa duen herritar ororentzat.

54 Hainbat jatorritako herritarrak harremanetan jartzeko programa auzoz auzoANIZTASUNA
AUZOAK

Donostiako herri eta auzoetan bizi diren hainbat jatorritako herritarren artean elkar ezagutzea, elkar ulertzea eta elkar aitortzea sustatzeko programa abian jarriko du EH Bilduk. Kohesiorako eta elkarbizitzarako oinarri moduan eta xenofobiaren kontra borrokatzeko asmoz. Ongi Etorri egitasmoa, eskola komunitatearen elkarbizitza osasuntsuagoa helburu duena, eta Auzoko dinamika, migratzaile familiak euskara eta euskal kulturara gerturatzen dituen, eredu egokiak izan daitezke eta haiekin sinergiak bilatuko ditugu.

55 Kultur Aniztasunaren Udal Kontseilua sortuko duguANIZTASUNA
UDALA

Kultur Aniztasunaren Udal Kontseilua sortuko dugu, non migrazioarekin lotutako gaiak ere pisu handia izan beharko duten. Udal ordezkarietz gain, Donostiako eragile sozialek hartuko dute parte bertan; tartean, noski, kultur aniztasuna lantzen duten elkarteek zein migratzaileez osatutakoek. Ikuspegia zabala izango da Donostiako jendarte osoak kudeatu eta landu beharreko arloa baita kultur aniztasuna. Alor honetako politikak eta herritar guztiek, edozein dela ere beren jatorria, eskubide guztiak gauzatzeko neurriak diseinatu eta proposatuko ditu aipatutako kontseiluak. Kultur Aniztasuneko udal zuzendaritza indartuko dugu, azken agintaldiko utzikeriari buelta emanez.

56 Donostia, harrera hiriaMIGRATZAILEAK
GIZARTE EKINTZA
ANIZTASUNA
UDALA

Donostian bizi den edonork eskubide guztien jabe izan dadin lan egingo du Donostiako EH Bilduk. Horretarako, Udalak eskura dituen bitartekoak erabiliko ditugu eta indar berezia egingo dugu egoera zaurgarrian iristen diren migratzaileei eskubide horiek bermatzeko. Erroldatzeko, udal azpiegiturak erabiltzeko eta beste era bateko izapideak egiten lagundu eta aholkularitza, oinarrizko zerbitzuak eta legezko arreta eskainiko zaizkie pertsona horiei guztiei, administrazio egoera irregularrean daudenei barne. Horretarako, udal protokoloa martxan jarriko dugu, Harrera Sarearekin eta hirugarren sektorearekin batera. Udal eskumenetatik at ere defendatuko ditugu Donostian bizi den ooren eskubideak.

57 Gazteek autogestionatutako proiektuak babestu eta erraztu

Herritar gazteek beren beharrak eta proiektuak aurrera eramateko ekimenak martxan jartzea jarrera eredugarria da. Erakunde publikoekiko dependentzia edo mendekotasunik gabeko harremanak eraiki behar dira proiektu hauekin. Partaidetza irekiko eta funtzio komunitarioko proiektu orok bezala, baliabide publikoak eskainiko zaizkie. 2011-2015 aldian sortutako Txantxarreka gatzetxearen eredu zabaldu beharrekoa da.

GAZTEAK
AUZOAK
ELKARTEGINTZA

58 Gazteleku, haurtxoko eta haurguneen eskaintza indartu eta zabaltzea

Haurguneen alorrean (0-5 urte), haurtxokoenean (5-11) eta gaztelekuenean (11 urtetik gora), ezer gutxi egin da agintaldi honetan. Buelta eman behar zaio egoera honi. Horregatik, gune hauen dinamika indartu behar da: Parte Zaharra, Loiola, Antigua... Zerbitzua uda garaira ere zabaldu beharra dago. Horrez gain, auzoz auzoko aisialdi taldeekin sinergiak bilatu eta lankidetzak proiektuak garatu behar dira.

AUZOAK
HEZKUNTZA
GAZTEAK

59 Estalitako gune publikoak Donostiako auzo guztietan

Donostiarrek, eta bereziki haur eta gazteek, estalitako gune publikoak behar dituzte beren auzoetan. Estalitako guneak kontsumo gabeko aisialdi eredu bat eta jarduera sozial eta komunitarioak sustatzeko modu bat dira. Tamalez, azken agintaldian, hainbat proiektu atzera bota ditu Udala. Indartu beharreko politika da, ordea. Donostiako herri eta auzo guztietan, gutxienez, estalitako gune publiko bana izatea bermatu behar du Udalak. EH Bilduk pausoak emango ditu norabide horretan: Easo plazako estalkia, Egiako Plaza Haundi, Groseko Zuberoa plaza, Amara Berriko Armeria plaza estaltzeko aukera, Antigua ere beste gune bat... Donostia osorako diseinua auzo elkarteekin eta beste eragile sozial batzuekin egingo du EH Bilduk, horretarako propio udal batzorde bat sortuta.

AUZOAK
HIRIGINTZA

60 Udalbatzarretan hitza hartzeko eskubidea

Egungo prozedura aldrebesaren aurrean, araudi-aldaketa eraginkorra bultzatuko dugu herritarrek udalbatzarretara joatez gain, bermez, hitza hartzeko eskubidea eta eragiten dieten eztabaidetan parte hartzeko aukera izan dezaten. Gauza bera egingo dugu udal batzordeak publikoak izan daitezen eta komunikabideek irudiak edo audioak hartu ahal izan dituzten.

UDALA
PARTAIDETZA

61 Demokrazia zuzena, donostiarrek protagonista izateko

Azken agintaldi honetako etenaren ondoren, demokrazia zuzena martxan jartzeko ekintza hauek abiatuko ditugu, lotesletasuna errespetatzeko konpromisoa berretsiz: auziperatutako Hiritar Kontsulteren Araudiaren defentsa juridiko eta politikoa egingo dugu; lege oztoporik ez duelako, auzo mailako galdeketa egiteko erregelamendu arin eta eraginkor bat sortuko dugu herri-partaidetzaz auzo elkarteekin, eta eragile eta plataformekin, zezenketen inguruko galdeketa gauzatzeko formula egokiena adostu eta aurrera eramango dugu.

PARTAIDETZA
AUZOAK
ELKARTEGINTZA

62 Udala auzo eta herrietara itzuliko da

Barrutien banaketa artifizialaren gainetik, Udala auzo elkarteekin eta auzoetara itzultzeko programa berreskuratu eta harremana bideratzeko auzo bakoitzerako tekniko-erraztatzaileak ezarriko ditugu. Horrekin batera, Auzo Elkarten Foroa berreskuratuko dugu. Ekialdeko barrutiari dagokionez, auzotarren Junta benetan erabakiorra izateko lan egingo dugu eta dagozkien aurrekontuak onartzeko prozedura erreala adostuko dugu. Azkenik, Donostia osatzen duten herri eta auzoetako herritarren erabakitze eskubidea errespetatu behar du Udalak.

AUZOAK
PARTAIDETZA

63 Udaltzaingo komunitarioa eta genero indarkeriaren kontrako borrokan inplikatu

Udaltzaingoak herritarren zerbitzura egon behar du eta haien askatasunak defendatu behar ditu. Horregatik, Bilduk sustatutako eta 2011-2015 agintaldian sortutako Bitartekaritza eta Ekintza Komunitario Unitatearen pertsonala handituko dugu. Baita genero indarkeriaren alorrean lanean ari den pertsonala ere (gaur egun bi udaltzain).

ELKARBIZITZA
FEMINISMOA
SEGURTASUNA

64 Udaltzaingoaren autonomia defendatuko dugu

Eusko Jaurlaritzaren eta Donostiako Udalaren arteko segurtasun hitzarmena berrikusiko dugu, Udaltzaingoaren autonomiaren defentsan. Izan ere, zentralizazio prozesu nabaria dago eskumenen alorrean Donostiako Udaltzaingoaren kaltetan (hitzarmenean, esaterako, delitu larriak ikertzeko eskumena Udaltzaingoiari kendu eta Ertzaintzari ematen zaio). Era berean, Udaltzaingorako sarbidea Udalak berak egindako hautaketa prozesuen bitartez izatea defendatuko dugu (Lan Eskaintza Publikoak edo lan poltsak).

UDALA
ELKARBIZITZA
SEGURTASUNA

65 Udaltzaintzako prestakuntza plana, ikuspegi barne-hartzailea sustatzeko

Udaltzaintzako prestakuntza plan bat negoziatuko dugu, non genero ikuspegia nahitaezkoa eta lehentasunezkoa izango den. Indarkeria matxistari ez ezik, jatorri, arraza, sexualitate, genero-identitate eta abarreatiko delituei ere arreta berezia eskainiko zaie.

HEZKUNTZA
ANIZTASUNA
ELKARBIZITZA
SEGURTASUNA

66 Bide hezkuntza programak indartuko ditugu

Donostiako eragileekin eta auzo elkarteekin batera, hiria eta auzoak seguruak eta irisgarriak izan daitezen, bide hezkuntza programak indartuko ditu EH Bilduk. Udaltzaingoak urte luzez Donostiako eskoletan eskaintako bide hezkuntza programak, auzoetako eragileekin elkarlanean, auzotar guztiei zabalduko zaizkie.

HEZKUNTZA
MUGIKORTASUNA

67 Mozal Legea ez dugu aplikatuko

Herritarren eskubide eta askatasunen defentsan, Mozal Legea Donostian izaten ari den eragina aztertu eta eragin hori ezabatzeko neurriak hartuko ditugu.

ELKARBIZITZA

68 Energia merkaturatzeko udal enpresa sortuko dugu

Merkatu elektriko handizkarien aurrean, udal merkaturatzaile propioa sortuko dugu, Udalari berari eta bere mendeko azpiegitura eta zerbitzu guztiei zein donostiarrei (bereziki pobrezia energetikoan bizi diren herritarrei) % 100 energia berriztagarria eskaintzeko, zerbitzu publiko baten bermearen atarpean eta edozein planteamendu merkantilistik at.

ENERGIA
EKONOMIA
EKOLOGIA
UDALA

69 Energia kontsumo eraginkorra eraikin publikoetan eta herritarrentzako aholkularitza

Klima aldaketaren kontrako borrokaren ildotik, energia kontsumoak eragindako CO₂ isuriak murriztuko dituen estrategia aurrerakoia indartuko dugu, zeharka kalitatezko enplegu berdeak sortuz. Lehenik, udal eraikin eta instalazioetan energia eraginkortasun maila altuak lortuko ditugu, energia beharra ahalik eta txikiena izan dadin. Trantsizio energetikorako aholkularitza udal bulegoa ere sortuko dugu, etxeetan, enpresetan edo bestelako eraikinetan energia eta ur kontsumoa murrizten laguntzeko.

ENERGIA
EKONOMIA
EKOLOGIA
UDALA

70 Donostian bertan energia berriztagarria sortzeko pausoak emango ditugu

Udalak energia berriztagarrien sorkuntza proiektuak aurrera eramango ditu, horretarako bideragarriak diren espazio publikoetan; instalazio fotovoltaikoak edo eguzki energia termikoarenak jarriko ditugu eraikin publikoetan, esaterako, eta haize-sorgailuen parke txikiak (2-3 eoliko) Donostian bertan jartzeko aukerak aztertuko ditugu. Beste alor batzuetan bezala, honetan ere kooperatiba eredia sustatuko dugu.

ENERGIA
EKONOMIA
EKOLOGIA
UDALA

71 Naturguneetako eta kaleetako zuhaitzia babesteko araudi berri bat egingo dugu

Urbanizatutako eremuetan zein berdeguneetan dauden zuhaitzen babesa eta kudeaketa arautuko dugu: zuhaitzi eta banako ale bereziak babestu eta kontserbatzeko eta erasoen aurrean, kalte-ordainak zein udal zigor-araudia izateko; hirigintza proiektuetan, mozketaren gainetik birlandaketa lehenesteko; kaleko zuhaitziari dagokionez, mantentze merkeko, tamaina eta hazkunde egokiko eta klima aldaketara egokitutako espezieak hautatzeko. Oro har, espezie autoktonoak sustatu behar ditu Udalak.

EKOLOGIA
HIRIGINTZA

72 Donostiako natur ondarea ezagutzeko programak indartuko ditugu

Donostiako ingurumen ondarea ezagutzeko, Ulian, Aieten eta Cristina-Enea/Gladys Enea parkean egiten diren haur, gazte eta familiei zuzendutako programak indartu egingo ditu EH Bilduk. Donostiako elkarteekin batera, hiriko landaredia eta bizidunak ezagutzeko jarduerak bultzatuko ditugu.

EKOLOGIA
HEZKUNTZA
AUZOAK

73 Kutsadura akustikoaren aurkako neurriak

Planifikazioaren hitzetatik, benetako ekintzetara jauzi egiteko aurrekontua bikoiztu eta hirigintzan zarata zehar-lerro nagusietakoa bilakatuko dugu. Hainbat auzotan arazo bihurtu baita kutsadura akustikoa: Parte Zaharra, Loiolako Erribera, Errondo pasealekua, Intxaurren, Herrera... Besteak beste, honako neurri hauekin: gaueko aisialdiarekin lotutako arauak berraztertzea, trenbide eta errepide alboetan pantailak ezartzea, industriarentzat eremuko planak garatzea, autoen eta motorren zarata kontrolatzea, kontratazio publikoan zarata gutxiagoko makinak eskatzea...

OSASUNA
HIRIGINTZA
AUZOAK

- 74 Zero Zabor bidean, %60tik gorako birziklapen tasa datorren agintaldian** **EKOLOGIA OSASUNA**
- Datorren agintaldian % 60tik gorako birziklatze tasa lortzeko (% 38,5ekoa da gaur egun), errefusaren edukiontzi txip-duna ezarriko dugu. Organikoaren bilketa selektiboa bultzatzeko, etxe eta auzo konpostak auzo guztietara eramango ditugu eta eskola konposta, ikastetxe guztietara. Organiko edukiontzi txipduna sustatuko dugu, hobaria %50era igoz.
- 75 Eraiki gabeko eremuak landa gune gisa egonkortuko ditugu** **EKOLOGIA HIRIGINTZA**
- Eraiki gabeko eremuak (Unanue, Auditz Akular, Antondegi, Igarra, Igeldo...) ez-eraikigarri eta landa-eremu gisa babestuko ditugu planeamendu eta kontserbazio tresna juridiko propio bidez. Gerriko berdearen kontzeptutik gerriko agroekologikoaren kontzeptura pasatuko gara. Uliako Plan Berezia, bestalde, kontserbazio irizpide nagusien baitan onartzea bultzatuko dugu. Mendizorrotzeko labarrak babesteko ikerketa abian jarriko dugu.
- 76 Oinezkoentzako hiri atsegina** **HIRIGINTZA MUGIKORTASUNA AUZOAK**
- Donostiak hiri atsegina izan behar du oinezkoentzat. Jarraituko dugu auzoetan kaleak eta plazak oinezkoentzat egokitzen (Gregorio Ordoñez kalea, esaterako). Isabel II.a ere lau errailetatik bira pasatuko da eta espaloiak zabalduko dira (autobus erraila, TAO komertziala eta auzotarrentzako espazioak mantenduko dira). Añorgaren bulebarizazioaren bigarren fasea bukatu eta Loiolakoa ere egin behar da. Saguesen urbanizazioa bukatuko dugu, plaza publiko bat egiteko (azken hiru proiektuok geldirik egon dira agintaldi osoan).
- 77 Kontxa-San Martin: oinezkoentzako espaloia zabaldu eta errail bat gutxiago autoentzat** **MUGIKORTASUNA HIRIGINTZA**
- Ildo beretik, Kontxako pasealekuan eta San Martin kalean oinezkoentzako espaloia zabaldu eta autoen errail bat kenduko dugu. Era horretan, oinezkoek lekua irabaziko dute eta nagusi izango dira eremu honetan. Bidegorriari segida emango diogu San Martin kalean, erdiguneko sarea indartzeko.
- 78 Zirkulazioa lasaitu eta hiri atsegina egiteko neurriak** **MUGIKORTASUNA HIRIGINTZA EKOLOGIA**
- Zirkulazioa lasaitzeko, abiadura mapa berria egin eta hiri atsegina egiteko neurriak hartuko ditugu; besteak beste, autoentzako 30 km/h abiadura muga duten guneak zabaldu. Ibilgailuak erdigunera irits daitezten saihesteko, disuasio aparkalekuak egingo ditugu Igaran eta ospitaleetan. Eta ospitaleetako igoeran autoen abiadura murrizteko neurriak hartuko ditugu. Aparkalekuei dagokienez, Txofreko aparkalekuaren kudeaketa publiko sustatuko dugu.
- 79 Bizikletaren sustapena: Mirakruz-Ategorrieta bidegorria** **MUGIKORTASUNA HIRIGINTZA EKOLOGIA**
- Bizikletaren erabileraren aldeko politika berreskuratu behar da. Bidegorri sare osoa berraztertuko dugu, egokitzapenak eta hobekuntzak inplementatzeko, eta Mirakruz-Ategorrieta bidegorria egin eta Jose Elosegin egiteko aukera aztertuko dugu. Aparkalekuak jartzeko politika ere berreskuratuko dugu; ez soilik erdigunean, baita Donostiako gainerako auzoetan ere.
- 80 “Autobus azkar” lineak (BRT)** **MUGIKORTASUNA AUZOAK**
- Garraio publiko iraunkor eta eraginkorra sustatze bidean, Bus Rapid Transit (BRT) edo “autobus azkar” lineak ezarriko ditugu Donostian. Alegia: autobus elektrikoak, lehentasun semaforikoa dutenak, edozein atetatik sartu eta ateratzeko aukera ematen dutenak, bost minutu inguruko maiztasunaz... 28. linea BRT moduan egokitu, eta 14. eta 40.a batuta, Bidebieta-Igarakoa sortuko dugu irizpide berberarekin: autobusen lehentasuna bermatuko da ibilbide osoan. Horrez gain, Altxatik Orereta-Erreteriarra joateko autobusaren maiztasuna berreskuratze lan egingo dugu, Foru Aldundiarekin batera, eta 38. linearen maiztasunak hobetuko ditugu (Trintxerpe-Altza-Molinao).
- 81 dBus zerbitzua hobetuko dugu, haur eta gazte, emakume, langile eta hirugarren adinekoen ikuspegitik** **MUGIKORTASUNA AUZOAK GAZTEAK ADINEKOAK FEMINISMOA**
- dBus zerbitzuak hobetuko ditu EH Bilduk, oro har, baina bereziki, haur eta gazte, emakume, langile eta hirugarren adinekoen beharrei ahalik eta ondoren erantzuteko. Lanerako joan-etorriak autobusez egiteko eskubidea bermatuko dugu, ordutegi zabalkunde bat indarrean jarri. Eskaripeko geldialdiak linea guztietara zabalduko ditugu. Eta -bereziki, Donostia ekialdeko eremu malkartsuetan- mikrobus zerbitzuak abian jarriko ditugu auzo barneko loturak hobetzeko.

82 Igarako poligonoa antolatu eta garraio publikoa hobetuko dugu Zuatzukoan**MUGIKORTASUNA
AUZOAK
EKONOMIA**

Mugikortasun ikuspegitik, Ibaeta-Igarako poligonoa anabasa da gaur egun. Antolatu beharra dago, beraz. Ildo horretatik, bidegorria osatu, espaloi zabalagoak eta bus-erraila jarri eta aparkalekua egingo dugu. dBus zerbitzuen maiztasunak ere hobetuko ditugu. Zuatzuko poligonoak, bestalde, irisgarritasun zaila dauka. Horregatik, 5. lineako autobus guztiak, gutxienez, Zuatzuko biribilgunera iristea sustatuko dugu.

83 Garraio-aldaketak eta 51. bidaiatik aurrerakoak doan, Mugi txartelean**MUGIKORTASUNA**

Mugikortasuna erraztu eta garraio publikoaren erabilera sustatzeko, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan, bidaiaria berean garraioz aldatzea eta -hilean- 51. bidaiatik aurrera, bidaiari guztientzat doan izatea defendatuko dugu.

84 Donostialdeko tren sarea hobetzeko lan egingo dugu**MUGIKORTASUNA
AUZOAK
HIRIGINTZA
IRISGARRITASUNA**

Udalak eragile aktiboa izan behar du gainerako instituzioen aurrean. Bi helburu nagusirekin: Adif eta Euskotren sareak elkar lotuko lituzkeen Loiolako Erriberako geltokia behingoz eraikitzeke eta Altza-Galtzaraborda Euskotrenen adarra ere behingoz egiteke (azkeneko honek Altzako geltokian Donostiako gainerakoetako maiztasun berberak izatea ahalbidetuko luke). Ildo beretik, Renferen Herrerako geltokia berritzeko lan egingo dugu, irisgarritasuna bermatuz, eta Euskotren geltokiarekin duen oinezko lotura hobetuko dugu. EH Bildurentzat donostiarrek erabiltzen dituzten tren zerbitzuak eta hiriaren benetako beharrei erantzuten dieten proiektuak dira lehentasuna. Iztuetako zubibidea kenduko dugu.

85 Mugikortasun bertikala**MUGIKORTASUNA
IRISGARRITASUNA
AUZOAK
ADINEKOAK
ANIZTASUN
FUNTZIONALA**

Donostiarren ia erdia % 10eko maldak dituzten gunetan bizi da. Eta %45 50 urtetik gorakoa da. Irisgarritasuna bermatzeko politikak indartu behar dira; besteak beste, auzo barneko edo auzoen arteko konexioak hobetzeko. Hau bereziki nabarmena da hiriaren ekialdean: Altza, Uliá, Egia edo Intxaurren. Zentzu honetan hurrengo legegaldian mugikortasun bertikala bermatzeko inbertsioak handitu eta proiektuak azkartu behar dira, igogailuen bitartez eta aldi berean oinezkoentzako ibilbide irisgarriak bermatuz: Añorga Txiki, San Antonio, Herrera-Larratxo, Oleta, Zubiaurre-Zarategi, Zarategi-Mons...

86 Donostiako Egiaren Batzordea sortuko dugu**MEMORIA
ELKARBIZITZA**

2011-2015 agintaldian, lehen frankismoaren biktimen memoria berreskuratzeko egindako lanari segida emanaz, azken frankismoan eta trantsizioan (1960-1981) indarkeriak Donostian eragindako giza eskubideen urraketan inguruko ikerketa-batzorde bat eratuko dugu. Indarkeria mota guztien biktima guztiei aitortza egiteko ondorengo fasea litzateke, beraz. Elkarrekin batera, Donostiako Giza Eskubideen Udal Batzordeak koordinatuko du lan hori. Ondorioak onartuta, kaltetutako pertsonen aitortza egingo da eta, dagokionean, haien beharrezko laguntza emateko bideak aztertuko dira. Donostiako Egiaren Mapa osatzeko, "Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketan argazkiak" (Eusko Jaurlaritza, 2015) lanean bildutako kasuen abiapuntua hartuko da, zaurituak, ikerketa handiago behar duten kasuak eta oraindik jaso gabe direnak gehituz. TOP epaitegi frankistak (1963-1977) bidegabeki epaitu eta kondenatutako donostiarrek ezagutzera eman eta omentzeko ekimen instituzional bat ere egingo dugu. Horrez gain, Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen dinamikan, bake prozesuak lantzeko ildo indartzeko konpromisoa du EH Bilduk. Oro har, indarkeria mota guztien biktima guztien aitortza eta memoria historikoa bultzatuko ditugu.

87 Euskal preso politikoen senideei aholkularitza**ELKARBIZITZA
GIZARTE EKINTZA**

Donostiako presoek etxetik urrun jarraitzen duten bitartean beren senideei aholkularitza bideak eskaini behar zaizkie -udal zerbitzu sozialen edo beste estamentu batzuen bidez-, urraketaren bat jasandako beste edozein herritarri bezala. Donostiako presoek espetze eta epaitegi dosierak aztertuko ditugu Giza Eskubideen Batzordean, non dagokien lege edo espetze onura guztiak bermatzeko behar diren harremanak egingo diren. Presoen egoeraz arduratzen diren sektoreekin elkarlanean arituko da Donostiako EH Bildu.

88 Preso politiko eta iheslari ohiak beren errealitate berrira egokitzeko bitartekoakELKARBIZITZA
GIZARTE EKINTZA

Donostiako preso ohiak kartzela osteko errealitatera egoki daitezen bideak eta ekintzak burutzeko protokolo bat adostea proposatuko dugu. Horren bidez, bazterketa ekonomiko egoeran edo arrisku horretan dagoen beste edozein herritarrekin egiten den bezala, beren enplegutasuna hobetuko dugu, lana errazago topa dezaten, eta alokairu sozialeko etxebizitzan onuradun izatea bultzatuko litzateke, besteak beste. Etxeratu nahi duten iheslari prozesuan laguntzeko konpromisoa du EH Bilduk. Oro har, preso eta iheslari politiko guztien etxeratzea eskatu eta horren alde egingo dugu.

89 Torturatutako donostiarren aitortzaMEMORIA
ELKARBIZITZA

Torturaren errealitatea argitara ekarri du Eusko Jaurlaritzak enkargatu eta, Pako Etxeberria auzitegi medikuaren eta Laura Pego zuzenbide doktorearen zuzendaritzapean, EHUK egin duen ikerketa lanak. Lau milatik gorako kasu baieztatuta, ehunka batzuk donostiarrak dira, eta askoz gehiago torturatuak izan dira Donostiako Antigua, Amara edota Intxaurrendoko kaserna eta komisaldegietan, La Cumbre eraikinean eta abarretan. Tortura pairatu duten eta inolako aitortza eta erreparaziorik jaso ez duten donostiar horien kasuak bildu eta sufritutakoa ezagutaraziko dugu, giza eskubideen errespetuan oinarritutako elkarbizitzari beste zubi bat eskaintzeko.

90 EH Bilduk desmilitarizazioa bultzatuko duDESMILITARIZAZI
OA
HIRIGINTZA

Donostia demokratikoa eta bageduna egiteko bidean, EH Bilduk desmilitarizazioa bultzatuko du. Konpromiso horri jarraiki, Loiolako kuartelen lursaila donostiarren esku uztea eskatuko du, baina ez diogu Espainiako Armadari inongo lursailik emango. Espainiako Armadak, Goardia Zibilak eta Polizia Nazionalak Donostiatik alde egin behar dute. Oro har, antimilitarismoaren baloreak sustatuko ditu EH Bilduk.

91 Pio XII. plazako Gobernu Zibila, kultur etxeKULTURA
AUZOAK
ELKARTEGINTZA

Donostiako EH Bilduk bat egiten du Gobernu Zibila Amara Berriko kultur etxe bihurtzeko eskaerarekin. Gaur egungo kultur etxeak nekez egiten dio aurre auzoaren eskaerari eta Pio XII. plazako eraikina egokia izan daiteke horretarako. Eraikina Espainiako Gobernuarena da, ia ez du erabilerarik gaur egun, eta Udalak hura berreskuratzeko ahalegin osoa egin behar du.

92 Kultur eragileek erabaki guneetan parte hartzeko mekanismoak sortu eta baliatuko diraKULTURA
UDALA
PARTAIDETZA
ELKARTEGINTZA
AUZOAK

Udalaren eragin eremuko jaialdi, azpiegitura, egitasmo eta politiken erabaki guneetan kultur eragileen parte hartzea bideratuko da. Eragileen mahaiak sustatuko dira hiri mailan, auzo mailan, espazioen kudeaketaren inguruan eta kultur ekimenen inguruan. Oro har, kultur jardueren deszentralizazioa bultzatuko du EH Bilduk.

93 Azpiegiturak sortzaile eta eragileen beharretara egokituko dira eta erabilera berriei ateak zabalduko zaizkieKULTURA
PARTAIDETZA
ELKARTEGINTZA
AUZOAK

Gazteen, emakumeen, hirugarren adinekoen, sortzaile berrien eta auzotarren behar espezifikoak azterketak eta entzute ariketak bideratuko dira azpiegitura publikoen funtzioak zabaltzeko eta berdefinitzeko, hala ondorioztatuz gero. Espazioen erabilerarako prozesuak erraztuko dira (araudiak malgutu, burokrazia murriztu...) eta beharrezko baliabideez hornituko dira (espazioak egokitu, ekipamenduak osatu...). Antzerkigintzan ikasketak egin ahal izateko egungo baliabideen azterketa egin eta bide berriak sustatzeko apustua egingo da.

94 Sorkuntza eta hezkuntza harremanean jartzen dituzten egitasmoak sustatuko diraKULTURA
HEZKUNTZA
PARTAIDETZA

Sortzaileei haien proiektuak aurrera eramateko aukerak eskaini eta aldi berean herritarren sortze prozesu horiek ezagutu ahal izateko balioko duten programa publikoak bultzatuko dira. Hala nola, sorkuntza-erresidentziak auzoetan ikastetxeekin harremanean; konpainia edo sortzaile-talde egoiliarak ekipamendu publikoetan; kulturara sarbidea izateko zailtasuna dutenentzat eskaintza...

95 Kultur arloko ekimenak pertsonen garapenak, gizarte kohesioak eta bizikidetzaren beharrek gidatuko dituzte; ez interes ekonomiko eta komertzialekKULTURA
PARTAIDETZA

Kulturarako sarbide unibertsalaren bidean, kultur eskaintza herritar sektore orori gerturatzeko ahalegina egingo da, prezioak egokitzuz eta komunikazio ildo espezifikoeekin. Kultur eskaintza ez da jarduera publizitario-komertzialen mendeko elementu bihurtuko. Ekitaldi eta jarduera ez-ohikoetan bereziki ikuskatuko da lan baldintza eta baldintza tekniko guztiak betetzea.

96 Euskal kultura eta euskarazko sorkuntza-sistemaren beharrei erantzutea lehentasuna izango daKULTURA
EUSKARA

Donostia euskal kulturaren sorgune, plaza eta erakusleihu nagusietakoa da eta izan behar du. Ikuspegi horretatik, lehentasuna emango zaie euskal kultur sistema garaikide eta bizia elikatzen duten ekimenei. Hiriko programazio orotan euskal sortzaileen parte hartzea erraztuko da, bereziki nazioarteko proiektzioa duten jaialdietan; hiriaren azpiegiturak euskal eragileei erraztuko zaizkie.

97 Donostiako ondare urbanistikoa defendatuko duguHIRIGINTZA
KULTURA

Azken agintaldian atzerapauso nabarmena eman da Donostiako ondare urbanistiko eta artistikoaren babesean. Ondare hori lehen mailako kultur altxorra eta hiriaren identitatearen funtsezko parte da, eta horregatik, bereziki larria da gutxi batzuen espekulazio helburuen mesedetan hura galtzea. EH Bilduk hirigintza planeamenduak eta Udalaren eskura dauden tresna guztiak baliatuko ditu ondare hori mantendu eta babesteko.

98 Jai herrikoi eta parte-hartzaileen antolakuntza bultzatuko duguKULTURA
ELKARTEGINTZA
PARTAIDETZA
AUZOAK
GAZTEAK

Donostiako jai eredu herrikoi eta parte hartzailea oinarri duten festak bultzatu eta sustatuko ditu EH Bilduk, haien beharrak asetzeko lan eginez (baimenak, laguntza ekonomiko edo materialak, aseguruaren tramitazioa, azpiegiturak,...) eta auzoetako jai batzordeetako edo jaietako antolatzaileekin interlokuzioa eraginez.

99 Jai parekideak eta euskaldunak sustatuko dituguKULTURA
EUSKARA
FEMINISMOA
ANIZTASUNA
ELKARTEGINTZA

Jai eredu parekidea bultzatu eta diskriminazio egoerak saihestuko ditugu, Udalak antolatzen dituen une eta gune instituzionaletan zein herritarrek antolatutako ekimenean. Jai euskaldunak ere bultzatuko ditugu: Donostiako hizkuntz aniztasuna kontuan hartuz, herritarrak euskarara modu inklusiboan erakartzen saiatuko gara. Festa jardun bakoitzean euskarak lehentasuna eta espazio propioa izango du.

100 Festen eta kultur jardueren araudia berrikusiko dugu eta baimenak erraztuko dituguKULTURA
ELKARTEGINTZA
PARTAIDETZA
UDALA
AUZOAK

Gaur egun indarrean diren arauak, baimenak eta prozedurak jai antolatzaileekin batera berrikusiko ditu EH Bilduk, bizikidetzaren kontuan hartuta, baina festa giroa sustatze aldera, eta jai mota guztiak ere aintzat hartuta. Alor honetako diru laguntza politika ere berraztertuko dugu.

101 Anoeta, Kirol HiriaKIROLA
OSASUNA
AUZOAK

Anoeta eremua Kirol Hiri bihurtzeko proiektua bultzatuko du Donostiako EH Bilduk, gainerako erakundeekin aliantzak bilatuta, honako oinarri hauekin: Belodromoa, Atano III. frontoia, Paco Yoldi, Txuri-Urdin, Gasca eta Carmelo Balda (hietetako batzuek berri beharra dute); Ilunbe kirola eta ikuskizunak egiteko erabilera anizdun areto bihurtzea; Anoetako estadio txikia behingoz berritzea eta kirolarientzako aterpetxe bat egitea. Helburua: azpiegiturak berrituta eta sinergiak bilatuta, mota guztietako txapelketak antolatzea eta Gipuzkoako federazioen entrenamendu eta kontzentrazioak egiteko aukera ematea.

102 Lau kirol instalazio berriKIROLA
OSASUNA
AUZOAK

Donostiako kirol azpiegitura sarea osatzeko, datorren agintaldirako, lau lehentasun ditu EH Bilduk. Lehenik, Altzako kiroldegia egitea. Bigarrenik, futbol zelai berria Martutenen, etxebizitzak eraikiko baitira gaur egungoan. Hirugarrenik, aspaldiko zor bat: hockey zelaia, hipodromo ondoan. Eta laugarrenik, Merkear inguruko kirol instalazioak, Altzan.

103 Donostiako kirol ekipamenduen erabilera zabaldu: akordioa eskolekin

KIROLA
HEZKUNTZA
OSASUNA

Udalarenak ez ezik, beste kirol azpiegitura batzuk ere badira Donostian: eskoletakoak eta kirol elkartenak. Horregatik, EH Bilduk Udalaren, kirol elkarten eta eskolen arteko hitzarmenak sustatuko ditu donostiarrek ekipamendu gehiago izan ditzaten eskura eta etxetik gertuago. Bereziki interesgarria da eskoletako kirol instalazioak erabiltzeko aukera zenbait kirolekin: saskibaloia, eskubaloia, futbola, pilota, gimnasia... Erabilera hori auzotarrek egin dezaketenearekin uztartu beharra dago.

104 Emakumeen kirolaren sustapena

KIROLA
FEMINISMOA

2011-2015ean, Berdintasunaren Plan Estrategikoa onartu zen kirol alorrean, emakumeen kirol praktika sustatzeko asmoz. Tamalez, azken lau urteotan apenas eman da pausorik eremu honetan. Lehentasun hori berreskuratzeko du EH Bilduk: ordutegien eta instalazioen azterketa, emakumeen kirolari emandako diru laguntzei segimendua egin, praktika sustatzeko ekimen zehatzak... Orduko diagnostikoa berrituko dugu lehenik horretarako, plana egin eta gauzatu.

105 Inoren egoera ekonomikoa kirola egiteko muga izan ez dadin, baldintzak erraztuko dira

KIROLA
GIZARTE EKINTZA

48.000 donostiarrek dute Kirol Txartela. Datua arrakastatsua da. Baina hala ere, erabiltzaile kopuruak langa jo du eta gaur egungo lan baldintzen eta lan egoera prekarioaren ondorioa izan daiteke. Kirol Txartela sozialaren eta ohikoen artean, beste Kirol Txartel mota bat sortzea aztertuko dugu errenta kontuan hartuta.

106 Eskola Kirolaren eskaintza hobetuko dugu

KIROLA
HEZKUNTZA
GAZTEAK

Kirol praktika sustatzeko modu bikaina da Eskola Kirola: 5.000 hurrek parte hartzen dute urtero ekimen honetan. Programa hau indartuko dugu, Foru Aldundiarekin eta ikastetxeekin batera; hezitzaileen etengabeko prestakuntza bermatu eta beste kirol batzuk ezagutzeko aukera emanda, besteak beste.

107 Euskal pilota sustatzeko plana

KIROLA

2011-2015 agintaldian Donostian euskal pilota sustatzeko plana onartu zen, Donostia Kirolaren, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren, ikastetxeen eta kirol elkarten arteko lankidetzan oinarritua. Plan horri segida emango dio Donostiako EH Bilduk. Oro har, euskal pilotan, Donostiaren erreferentzialtasuna berreskuratzeko lan egingo dugu.

108 Donostiako eskola curriculuma egingo dugu

HEZKUNTZA
KULTURA
EUSKARA

Donostiaren errealitatea kontuan hartuta, bertako curriculuma osatuko du EH Bilduk hiriko eskolekin eta eragileekin batera. Euskarri propioak sortuko ditugu horretarako

(ipuinak, jokoak, fitxa didaktikoak, bideoak...). Oro har, Donostia ikasleei zabalik dagoen hiria izateko lan egingo du EH Bilduk; besteak beste, Donostiako eskaintza kultural, historiko, zientifiko eta soziala eskuragarri jarrita eta hiriko espazioetarako sarbidea, izan publikoa nahiz pribatua, erraztuta. Euskal curriculumaren alde lan egingo dugu, oro har.

109 Elikadura burujabetza eskolekin

HEZKUNTZA
EKONOMIA
EKOLOGIA

Hezkuntza komunitateak aurkezten dituen elikadura burujabe eta osasuntsu proiektuak lagunduko ditu EH Bilduk, horretarako eskolekin egin beharreko egokitzapenak eginga. Oro har, EH Bilduk tokiko ekoizpena, bertako ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena eta elikadura sistema iraunkorragoa eta bidezkoagoa bultzatuko du.

110 Francisco Escudero kontserbatorioaren espazio eta irisgarritasun arazoari soluzioa

KULTURA
HEZKUNTZA
IRISGARRITASUNA

Kontserbatorioak irisgarritasun eta espazio falta arazo nabarmenak ditu. EH Bilduk gainerako erakundeekin batera, eta bertako langile eta erabiltzaileen iritzia kontuan hartuta, behin betiko konponbidea bilatuko dio arazo honi.

111 Zezenketarik gabeko Donostia

ELKARBIZITZA
KULTURA
PARTAIDETZA

2011-2015 agintaldian zezenketarik gabeko hiria izan zen Donostia. EH Bilduk egoera horretara itzultzea defendatuko du. Donostiarrek gai honen inguruan iritzia eman dezaten aukera guztiak urratuko ditu EH Bilduk Alkatetzatik.

112 Hileta zibilak egiteko gunea

ELKARBIZITZA
UDALA

Laikotasunaren bidean urratsak eman behar direla uste du EH Bilduk. Eta, aldi berean, pertsonen bizi zikloan garrantzitsuak izan daitezkeen zerbitzu publikoak eskaini behar dituztela instituzioek. EH Bilduk, horregatik, hileta zibilak egiteko bideratuko du gunea publiko bat Zorroagan. Horren falta du Donostiak, agintaldi honetan pauso bat ere ez da eman, eta bada garaia halako ekipamendu bat izateko.

GAIKAKO AURKIBIDEA

Adinekoak	13, 14, 81, 85
Aniztasun funtzionala	16, 17, 85
Aniztasuna	28, 53, 54, 55, 56, 65, 99
Auzoak	9, 15, 37, 38, 41, 50, 54, 57, 58, 59, 61, 62, 72, 73, 76, 80, 81, 82, 84, 85, 91, 92, 93, 98, 100, 101, 102
Desmilitarizazioa	9, 90
Ekologia	35, 43, 44, 68, 69, 70, 71, 72, 74, 75, 78, 79, 109
Ekonomia	10, 18, 19, 31, 32, 33, 34, 35, 36, 37, 38, 41, 42, 43, 44, 68, 69, 70, 82, 109
Elkarbizitza	24, 25, 63, 64, 65, 67, 86, 87, 88, 89, 111, 112
Elkartegintza	22, 23, 50, 57, 61, 91, 92, 93, 98, 99, 100
Energia	68, 69, 70
Enplegua	12, 21, 32, 33, 34, 35, 36, 39, 43, 45, 46, 47
Etxebizitza	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 11, 14
Euskara	48, 49, 50, 51, 52, 53, 96, 99, 108
Feminismoa	12, 13, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 47, 63, 81, 99, 104
Gazteak	24, 57, 58, 81, 98, 106
Gizarte ekintza	10, 11, 13, 37, 56, 87, 88, 105
Hezkuntza	24, 58, 65, 66, 72, 94, 103, 106, 108, 109, 110
Hirigintza	4, 9, 26, 37, 42, 59, 71, 73, 75, 76, 77, 78, 79, 84, 90, 97
Irisgarritasuna	16, 84, 85, 110
Kirola	101, 102, 103, 104, 105, 106, 107
Kultura	37, 91, 92, 93, 94, 95, 96, 97, 98, 99, 100, 108, 110, 111
Memoria	86, 89
Merkataritza	41, 42, 44
Migratzaileak	56
Mugikortasuna	37, 66, 76, 77, 78, 79, 80, 81, 82, 83, 84, 85
Nazioarteko lankidetzak	29, 30
Osasuna	73, 74, 101, 102, 103
Partaidetza	60, 61, 62, 92, 93, 94, 95, 98, 100, 111
Segurtasuna	63, 64, 65
Turismoa	38, 39, 40
Udala	19, 20, 21, 27, 31, 40, 45, 48, 51, 52, 55, 56, 60, 64, 68, 69, 70, 92, 100, 112
Zaintza	12, 34
Zergak	1, 18, 40

Zurekin
DONOSTIA gara
ehbildu